


#oronafundazioa



Orona
Fundazioa
Foundation

2024 Jarduera memoria

01

Ingurunearekiko konpromisoa

Oronako Zuzendaritza Nagusiaren agurra

Fundazioaren helburuak

Orona Fundazioa gara

02

Jardun-esparruak eta -eredua

COFIP

Gizarterantz

Ekitaldiak

03

2024ko proiektu nagusiak

Esperientzia kooperatiboa

0 kilometroa

Kohesio soziala

Garapen akademikoa

Garapen kulturala

Euskararen sustapena

Biodibertsitatea



Oronako Zuzendaritza Nagusiaren agurra

Elkartasun- eta lankidetzakonpromisoa

Orona gara, gure bezeroen beharrak asetzeko zerbitzura eta jasangarritasunera bideratutako gizarte- eta enpresa-proiektua. Proiektua osatzen duten pertsonak dira gure zutabe nagusia, eta gardentasuna eta parte-hartzea bermatzen diegu. Gizarteko kide den aldetik, gizartera solidaritatea eta lankidetzak ekartzeko konpromisoa du Oronak.

Bultzada, gertutasuna, berrikuntza zentzuduna eta komunitatea dira gure funtsezko balioak. Printzipio kooperatiboak dira, gure helburuarekin batera, ingurunearekin dugun erlazioaren oinarria.

Gogoan ditugu Nazio Batuen 2030 Agenda eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuak, haien xedea pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta pertsona guztien oparotasuna bermatzea baita. Oronan badakigu gure proiektuaren ekarpena garrantzitsua dela gizartean helburu horiek guztion artean lortzeko.



Oier Lizarazu Iztueta
Oronako Zuzendari Nagusia

Orona Fundazioak funtsezko rola betetzen du gure erakundeko pertsonen ez ezik gizarteari zerbitzua emanez. Orona Ideoren bereizgarria da bere ingurunera irekita dagoela, eta, testuinguru horretan, trebakuntza-eta garapen-proiektuak eta kultura- eta gizarte-ekimenak ere babesten ditu.

2024an, gure inguruneari laguntzeko asmo sendoarekin jarraitu dugu, eta, horretarako, hainbat proiektu egin ditugu eragile sozialekin lankidetzan.

Memoria honetan, alderdi horiek guztiak azaltzen ditugu, gure ekintzek jasangarritasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartean.

Gure gizartearekiko konpromisoa funtsezkoa da Orona Fundazioarentzat. Denon artean aurrera egiten jarraituko dugu, pauso irmoz.

Fundazioaren helburuak

Hezkuntza-, kultura- eta gizarte-**garapena** sustatuz

Honako GJH hauekin konpromisoa:



Estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Orona Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzeko jarduera eta ekimenak egitea.

Illo horretan, fundazioaren helburuek barnean hartzen dute hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak apailatzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak antolatzea.

Horrez gain, fundazioaren helburua da ekonomia soziala sustatzea eta laguntzea eta kooperatibismoaren balioak zabaltzea, lan-munduan sartzea sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte- eta ongintza-jarduerak babestea.



Orona Fundazioa gara

Berrikuntza eta konpromisoa etorkizun jasangarri baterako



Orona Fundazioaren helburua da gizartea garatzen laguntzea, alderdi sozioekonomiko, kultural, hezkuntzako, sozial eta kiroletakoei dagokienez.

Horretarako, proiektuetan elkarlanean aritzen gara gizarte-eragileekin, gure aldetik azpiegitura, giza kapitala eta funts-bilketa jarriz.

Orona Fundazioaren nahia barne-zerbitzua ematea ere badenez, badu beste helburu nagusi bat: Oronako giza kapitalaren garapen integrala.

Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari fundazioak, eta, hala, funtzionamenduari koherentzia ematen zaio.

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta baliabide finantzarioak.

Beste urte batez, Oronaren berrikuntza sozialari laguntzen dio fundazioak, eta, hala, plus bat gehitzen die Kontseilu Sozialaren irizpideen arabera COFIPen bidez urtero egiten diren diru-ekarpenei (COFIP: Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena).

Jarduera-arloak

Ekintza bakoitzarekin benetako eragina bilatuz



Orona Fundazioaren jarduera hiru ekintza-eremu nagusitan antolatua dago:

- COFIP
- Gizarterantz
- Ekitaldiak

Lehenengo bi arloak, COFIP eta Gizarterantz, gizartean eragin positibo eta ukigarria sortzera bideratuta daude. Hori lortzeko, zuzeneko laguntza ematen zaie gizarte-erakundeek zuzendutako elkarte, ekimen edo proiektu zehatzei.

Helburua da erakunde horiek beren jarduera-eremuan egiten duten lana indartzea, eta, hala, gizarte-onura hainbat alderditatik sustatzea.

Hala, Orona Fundazioak laguntzen du ingurune inklusiboago, bidezkoago eta solidarioago bat sortzen, elkarlanean aritzen baita ongizate kolektiboaren alde lan egiten dutenekin.

Hirugarren arloa, Ekitaldiena, Orona Ideo inguruan Orona Fundazioak dituen guneetako jardueren antolakuntzan eta kudeaketan oinarritzen da. Ekitaldi horiek askotarikoak dira izaerari eta helburuei dagokienez, eta hainbat eragilek susta ditzakete:

- Orona Ideoko ekosistema osatzen duten eragileak, ezagutza partekatzeko, lankidetzan aritzeko eta sarea indartzeko lekua aurkitzen dutenak espazio horietan.

- Fundazioaren balioekin bat etorritik, komunitatearen onurarako jarduerak egiteko instalazio horiek erabiltzen dituzten elkarteak edo gizarte-erakundeak.
- Ingurune berritzaile eta paregabe batean bilera, aurkezpen, jardunaldi edo ekitaldi korporatiboak egiteko interesa duten enpresak.

Egitura horren bidez, Orona Fundazioak zuzeneko gizarte-ekintzaren bidez eragina sortzeaz gain, gizarte-eta enpresa-sarea aberastuko duen topagune bat eta lankidetzaz-gune bat eskaini nahi du, eta, hala, gizarte-eraldaketarekiko eta garapen jasangarriarekiko duen konpromisoa sendotu.

Jarduera-eremuak

COFIP

Onura soziala neurtzen denean zentzua hartzen duen onura



Hasiera-hasieratik, Orona Fundazioa konpromiso solidario sendoagatik eta ingurunearekiko duen erantzukizun sozialagatik nabarmendu da, eta balio horiek dira Fundazioaren nortasun-ikur nagusietako bat. Konpromiso hori islatzen da urteko etekin zati bat beti COFIPI eskaintzean (Hezkuntzarako, sustapen kooperatiboa eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena).

Ekarpen horiek kultura- gizarte- eta kirol- arloko ekimenak ere babesten dituzte, eta fundazioak komunitatearentzat garrantzitsuak diren hainbat arlotan duen eragin positiboa sendotzen dute.

Laguntza horiek Kontseilu Sozialen bidez kudeatzen dira, baliabideak esleitzeko bitartekari gisa jarduten dutelarik kontseiluok. Orona Fundazioak erabilgarri dauden funtsak kontseilu bakoitzean ordezkaturako bazkide-kopuruaren arabera banatzen ditu. Banaketa-eredu horren bidez, Orona S. Coop.k diharduen herri guztietan inpaktua ukigarria eta bidezkoa izatea bermatzen da, tokiko sare sozial eta ekonomikoa indartuz.

Ekimen horren bidez, Orona Fundazioak aukerak sortzeko eta garapen jasangarrirako duen konpromisoa indartzen du, eta gizarte-eraldaketan eta aurrerapen komunitarioan funtsezko eragile gisa duen posizioa sendotzen du.



Jarduera-eremuak

Gizarterantz

Gizarterantz, gizartea tokian tokiko mailan garatzeko lan-ildoak

Ingurua garatzeko lan-ildoak (Gizarterantz) dago zuzenki errota tokiko gizartean, haren garapena hainbat ikuspegitik sustatzea baitu helburu:

- Prestakuntza, hezkuntza eta ikerketa.
- Kultura-, gizarte- eta ongintza-jarduerak.
- Euskararen sustapena.

Gure proiektuak hainbat arlo giltzarritan garatzen dira, eta arlo bakoitza inpaktu positibo eta iraunkor bat sortera bideratuta dago. Gure gizartearen funtsezko alderdi batzuk eraldatzea eta hobetzea helburu duten hainbat ekimenetan lan egiten dugu. Hona hemen, jarraian, zer jarduerak eremutan aritzen garen, bakoitzean aurrerapenarekin eta jasagarritasunarekin konprometituta.

ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA

Garapen-proiektuei laguntzen diegu, esperientzia kooperatiboaren balio solidarioen bidez.

0 KILOMETROA

Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modua eraldatzea eta tokiko ekonomiaren garapena sustatzea xede duten ekimenak biltzen ditu.

KOHESIO SOZIALA

Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzearen alde lan egiten dugu, eta tokiko kolektiboaren partaidetza-sentimendua indartzen eta eragileen arteko lotura sustatzen saiatzen gara.

GARAPEN AKADEMIKOA

Hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi dugu irakaskuntza-erakundearen artean, ikasleei gaitasun berriak eskuratzen eta garatzen lagunduz.

GARAPEN KULTURALA

Jarduera kulturala bizirik mantendu nahi dugu gure gizartean, etorkizunerako begirada eta ekarpen gisa.

EUSKARAREN SUSTAPENA

Euskara nortasun kulturalaren zati gisa sustatzeko proiektuak eta jarduerak babesten ditugu.

BIODIBERTSITATEA


Biodibertsitatea bera funtsezko ondasun naturala da. Horregatik bultzatzen dugu haren kontserbazioa eta garapen ekonomikorako eta gizartearen aurrerapenerako duen garrantzia.

Jarduera-eremuak

Ekitaldiak

Orona Ideo ingurune hurbileko eragileen topagune gisa jarduten duen gune bat da, eta lankidetzaz, ideien trukea eta tokiko sareen indartzea sustatzen ditu.

Gainera, instalazioak eskaintzen ditu hirugarren erakunde batzuek antolatutako ekitaldiak egiteko. Era horretan, sektoreen arteko interakzioa sustatzen du, eta interes komunekiko jardueretarako funtsezko leku gisa finkatzen da.



2024an, 89 ekitaldi egin dira. Haietatik 24 hirugarren erakundeek ekitaldiak izan dira. Guztira, 7.088 pertsona bildu dira ekitaldi horietan.

89

bilera edo ekitaldi

7.088

bisitari



2024ko proiektu nagusiak

Inpaktu positiboa sustatzen



2024. urtea mugarri garrantzitsua izan da elkartasunarekin eta hainbat gizarte-erakunderekiko lankidetzak aktiboarekin dugun konpromisoa berresteko. Orona Fundazioan, uste dugu inguruko gizarte-eragileekin batera lan egitea funtsezkoa dela gizartearen inpaktu jasangarri eta esanguratsua sortzeko.

Aldi horretan, sendotu egin ditugu harremanak hainbat gizarte-esparrutan funtsezko zeregina duten erakunde askorekin. Etengabeko lankidetzak horri esker, esperientziak eta ezagutzak trukatzear gain, elkarrekin garatzen ditugun proiektuen irismena eta eraginkortasuna maximizatzeko aukerak identifikatu dira.

Gure jardueraren ikuspegia zazpi jarduera-eremu estrategikotan oinarritu da. Eremu horiek kontu handiz zehaztuak daude, komunitatearen behar berriei erantzuteko, eta fundazioaren funtsezko balioekin lerrokatuta daude. Arlo horietan sartzen dira hezkuntza inklusiboa, ingurumen-jasangarritasuna sustatzea, gizarteratzea sustatzea, kultura-ekimenak garatzea, osasuna eta ongizatea, laneratzea eta gizarte-berrikuntza bultzatzea.

Aurtengo proiektu nabarmenen artean, hezkuntzaren kalitatea hobetzera bideratutako ekimenak sustatu ditugu, guztientzako baldintza berdinetan ikastea sustatzen duten baliabideak eta tresnak eskainiz. Era berean, kolektibo ahulen enplegarritasuna indartzea helburu duten zenbait programatan lan egin dugu, prestakuntza espezializatua eta laneratzeko laguntza emanez.

Jasangarritasunaren alorrean, ingurumen-erakundeekin baterako ekintzak jarri ditugu martxan, ingurumena zaintzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko, eta ingurumen-inpaktua murrizteko neurri zehatzak bultzatu ditugu. Era berean, eragile kulturekin elkarlanean aritu gara, tokiko ondare kulturala zaindu eta zabaltzeko, etorkizuneko belaunaldiak ondare horretaz gozatu ahal izan dezaten.

Proiektu horietako bakoitzak erakusten du Orona Fundazioak duen lankidetzarako espiritua eta konpromisoa. Uste sendoa dugu aldaketa soziala ahalagarri batzuan oinarrituta eraikitzen dela, eta, horregatik, gure baliabideak, ezagutzak eta indarra aliantza horiek sendotzera bideratzen jarraituko dugu. Gure helburua argia da: inpaktu iraunkor bat sortzea, pertsonen bizitza modu positiboan eraldatzeko duena eta gizartearen ongizate orokorrari lagunduko diona.

2024ko proiektu nagusiak

LANKIDETZA-PROIEKTUAK

Lankidetzeta-proiektuak
Mundukide Fundazioa

Kooperatibismoari buruzko jardunaldia
Onda Vasca

0 KILOMETROA

Elikadura-Proiektua
Diámetro 200

Amillubi
Biolur Elkartea

Batzar Orokorra
ENBA - Euskal Nekazarien Batasuna

Nekazaritza ekologikoko finka
Karabeleko

Merkatu-e
San Martin azoka

KOHESIO SOZIALA

Kind Surf
Shelter Surf Kluba

Denur - Oztoporik Gabeko Bainua
Hegalak Zabalik

Guztion Olatuak
Donostiako Zurriola Surf Kluba

Authentic Day by Orona Fundazioa
Donosti Cup

Saskiamets
Askatuak

Arraun Egokitua
Hernani Arraun Elkartea

Errebeldeak fest 2024
Dame Tvisión

Bipidestadoreak erostea
Aspace Gipuzkoa

Bizipoza Jaialdia
Bizipoza Elkartea

"Ihesa zilegi balitz" erakusketa
Argilun Kultur Elkartea

Gertu kultura
Kultur Kabia Elkartea

Kolore Guztiak jardunaldia
Kolore Guztiak

FGDA jardunaldia
Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa

EMAKTIVA egitaraua
EDE Fundazioa

Berdintasunean jardunaldia- Gautena
Gipuzkoako Autismo Elkartea

Hirube kooperatiba 5. urteurrena
Hirube Kooperatiba

GARAPEN AKADEMIKOA

First Lego league
Santo Tomas Lizeoa

Tailer teknologikoak
Doplay

PBLDAY
Mondragon Unibertsitatea

Urte amaierako piano-errezitaldia
Hernaniko musika eskola

Liburuaren aurkezpena
Hik Hasi

EHI jardunaldia
EHI - Euskal Herriko Ikastolak

GARAPEN KULTURALA

San Juan Baleontzia
Albaola

Tolofolk Jaialdia
Jeajeaka Kultur Elkartea

Sentsibilizazio-Proiektua
Landarbaso

Louisbourg-Kanada
Euskal Kulturaren Liburua
Jauzarrea

Binakako erremonete-txapelketa
Erremontari

Ombuaren itzala filma
Eguzki Art Zinema

150. Urteurrena
Valentin Larrea

"Dejame ir" film laburra
Ander Iruretagoiena

Orfeón Donostiarra
Orfeón Donostiarra

EUSKARAREN SUSTAPENA

Ikastolen jaiak - Erronka ekimena
EHI - Euskal Herriko Ikastolak

Bertsolari Aldizkaria
Bertsozale Elkartea

Matx Aplikazioa
Tokikom

Korrika
AEK

BIODIBERTSITATEA

Naturaguneak berreskuratzea
Irukurtzeta Fundazioa

Ornitologia-proiektua
Aranzadi zientzia elkartea

Esperientzia kooperatiboa

Kooperatibaren balio solidarioak sustatuz

01

LANKIDETZA-PROIEKTUAK MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Orona S. Coop. Mundukideren sortzaileetako bat da. 1999an sortutako GKE bat da Mundukide, eta Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea du helburu.

Mundukidek eredu kooperatiboaren esperientziak, baliabideak eta lanerako jakintza partekatzen ditu alderdien garapena (autogestiozkoa zein osokoa) sustatzeko, eta, horretarako, kooperatiba-esperientziaren balio solidarioak aktibatzen ditu.

Oronak laguntza eman dio Mundukidek sortu zenetik egindako lan garrantzitsuari, eta Orona Fundaziotik ekarpen ekonomiko garrantzitsuak egiten ditugu.



02

KOOPERATIBISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA ONDA VASCA

Topaketa uztailaren 2an izan zen, Orona Fundazioaren instalazioetan, eta Onda Vasca iratiak antolatu zuen, Oronarekin lankidetzan, kooperatibismoaren astea zela eta.

Bi mahai-inguruk osatu zuten jardunaldia, eta beren enpresen ereduan bat datozen hainbat pertsonak parte hartu zuten. Hainbat sektoretako kooperatibak izanik, iritzi-aniztasuna izan zen eztabaidatutako gaietan.

Jardunaldiko lehen mahai-inguruan izan ziren, besteak beste, Jokin Díaz Arsuaga (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren izenean), Marta Carazo (Eroski kooperatibaren izenean), Andone Ruiz Uranga (Ikastolen Elkartearen izenean) eta Dania López (Oronaren izenean).

Bigarren mahai-inguruan, lurraldeko lehen sektoreko zenbait kooperatibatako ordezkariak mintzatu ziren, hala nola Baserria KM0, Euskaber eta Garaiaikoak.

0 Kilometroa

Eredu jasangarriago baterantz aurrera

ELIKADURA-PROIEKTUA

DIÁMETRO 200

Elikadura-eredu berezi eta propio honen oinarria da Oronako langileei eta Orona Ideoren erabiltzaileei (Orona, Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan) sasoiko eta kalitate goreneko elikadura eskaintzea, bertan ekoitzia. Elikagaia metodo tradizionalak erabiliz prozesatzen da, ingurumenarekiko errespetua lehenetsiz, eta nekazari-, abeltzain- eta arrantzaile-kolektiboek bidezko prezio bat jasotzen dute uzta edo harrapaketatik.




Gure Elikagai SLren bidez, Oronak 0 kilometroko produktueta oinarritutako elikadura-eredu osasungarri bat eskaintzen die Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei eta Diámetro 200 jatetxera etortzen diren bezeroei.

Aipatutakoaz gainera, Oronako langileen artean kultura osasungarria sustatzeko eta elikagaiak alferrik ez galtzeko helburuarekin, eguneroko menuko janaria etxera eramateko aukera dago.

2024an, 101.499 otordu eman zaizkie Hernaniko Orona Ideoko, Epeleko eta Lastaolako langileei beren instalazioetan.

Otordu horiek guztiak emateko 2024an erositako lehengaien bolumen totalari dagokienez, % 68 hurbileko produktua da (200 km-ko diametro barruan du jatorria), eta/edo produktu ekologikoa eta bidezko merkataritzakoa.



0 Kilometroa

02 AMILLUBI

BIOLUR ELKARTEA

Biolur elkarteak bultzatutako Amillubi proiektua babesten dugu, landa-ondarea babesteko eta elikagaien ekoizpen ekologikoa sustatzeko.

Biolur irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, 1993an sortua nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatu eta bultzatzeko helburuarekin.

Amillubi proiektua Zestoako udalerrian kokatua dago, Iraetako meandroan, balio agroekologiko handiko eremu batean. Baratzegintzarako eta frutagintzarako lur emankorrak izateaz gain, biodibertsitate handiko ingurunea da.

Proiektu honetan, Amillubi Txiki baserria eta haren lurrak erosi eta landuko dira, bi helburu nagusirekin:

- Nekazaritza-ondarea babestea eta elikagaien ekoizpen ekologikora bideratzea, Gipuzkoako elikadura-burujabetzaren estrategia jasangarriari laguntzeko.
- Lehen sektorean erreleboa egiteko baldintza duinak sortzea eta lanpostuak sortzeko proiektuak garatzea.



03 URTEKO BATZARRA

ENBA - EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA

“Etorkizuna irabaziko dugu – Ganaremos el futuro” lelopean, Gipuzkoako ENBAk bere XXXII. Urteko Batzarra egin zuen Orona Fundazioaren auditorioan urtarrilaren 26an.

Asanbladaren zati pribatua amaitu ondoren, ekitaldi irekia egin zen, eta hartan Baserritarron Laguna saria eman zitzaion Jose Mari Zeberiori, familia-nekazaritzaren alde eta lehen sektorearen egituraketaren alde egindako lanagatik.



0 Kilometroa

NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO FINKA KARABELEKO

AGIFES, BLASENEA eta KIMU BAT elkarteen ahaleginei esker sortutako Karabeleko etxalde agroekologikoari laguntzen jarraitzen dugu.

Karabelekoren helburuak baratzegintza ekologikoaren ekoizpen- eta kontsumo-kultura sustatzea eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea dira.



MERKATU-E SAN MARTIN AZOKA

Orona Fundazioak Donostiako San Martin azokarekin Merkatu-e proiektuan duen lankidetzari jarraipena ematen dio, eta gure inguruan ekoizten diren kalitate oneneko produktuak Donostialdeko etxeetara hurbiltzen ditu modu jasangarrian.

Merkatu-e izeneko plataformaren bidez, betiko merkatua bertsio digitalarekin batera bizi da. Plataforma horretan, erosketak online egin daiteke, eta gero etxean jaso, Txita ibilgailuetan eramanda. Txita Donostiako enpresa bat da, trizikloak eta ibilgailu % 100 elektrikoak erabiliz garraio ekologikoko zerbitzuak eskaintzen aitzindaria.



Kohesio soziala

Komunitate integratzailea sustatuz

01 KIND SURF

SHELTER SURF KLUBA

Kind Surf erakundea gizarte- eta ingurumen-izaerako GKE bat da, egoera ahulean dauden gazteei surfaren bidez laguntzen diena.

Kind Surf proiektuak 2012an ekin zion bere ibilbideari, zenbait herri eta hondartzatan surf egokituko jardunaldi puntualak eginez eta dibertsitate funtzionala duten familiei surfaz gozatzeko aukera eskainiz.

2018an, Shelter Surf Klubak bereganatu zuen proiektu hori, eta, surf egokituko jardunaldiez gain, surf egokituko entrenamenduak antolatzen ditu Zarauzko hondartzan.

Ekimen honetan parte hartzen dugu izaera integratzailea duelako eta parte hartzen duten neska-mutilentzat oso onuragarria delako.



02

DENUR - OZTOPORIK GABEKO BAINUA

HEGALAK ZABALIK

Hegalak Zabalik Fundazioak koordinatutako programa honen helburua da dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzea (adinekoak, gazteak edo mugikortasun murriztua duten haurrak, dibertsitate funtzional fisiko, intelektual edo sentensorialeko pertsonak, patologia dituzten pertsonak, etab.) Donostiako Kontxako hondartzan bainatzen, ongizatea hobetzen eta aire zabaleko jardueraz gozatzen laguntzeko.

Orona Fundazioak ekimen hau babestu du dibertsitate funtzionaleko pertsonak integratzen laguntzeko, jakinik horrelako ekintzek eragin positiboa dutela parte-hartzaileen ongizate emozionalean.



03

GUZTION OLATUAK

DONOSTIAKO ZURRIOLA SURF KLUBA

Zurriola Surf Klubak eta Gautenak sustatutako "Guztion olatuak" proiektuaren helburua da autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN) dituzten pertsonen jarduerak estimulatzaile bat eskaintzea, haien bizikaltatea hobetzeko eta haietako bakoitzak dituen trebetasunak azaleratzeko.

Desgaitasuna duten pertsonentzat surfa egitea jarduerak motibagarria eta estimulatzailea da, eta onurak eragiten ditu garapen fisikoan eta mugimenduan.

Aniztasuna eta kohesio soziala sustatzeko espazioak sortzeak duen garrantziaz konbentzita babesten dugu proiektu hau.



Kohesio soziala

04 AUTHENTICS DAY BY ORONA FUNDAZIOA DONOSTI CUP

Authentic Day jardunaldiak aukera ematen die dibertsitate intelektualeko gazteei futbolaren munduan aktiboki parte hartzeko.

Orona Fundazioak jai-egun hori babesten du, eta pertsona guztiak daude gonbidatuta. Authentic finalak ere antolatzen dira.

Aurten, zortzi talde lehiatu dira txapelketako kategoria honetan: bertako Atzegi, Gaude, Gipuzkoako selekzioa, Olagarroak eta Real, eta Kataluniako Invencibles, Mexikoko Gladiadores eta Irlandako St. James Swifts.



05 SASKIAMETS ASKATUAK

Saskibaloiko Askatuak Klubarekin elkarlanean ari gara Saskiamets talde inklusiboa babestuz.

1975ean sortu zen Askatuak Kluba, eta Donostialdeko eremu geografikoan saskibaloia sustatzea eta praktikatzeari du helburu.

Orona Fundazioak Saskiamets talde inklusiboa babesten du, Gipuzkoako saskibaloitalde inklusibo bakarra. Helburua da taldekideak batetik bestera joatea, beren mailako beste talde batzuekin partidak jokatzeko, eta, era berean, jardunaldiak egitea halako ekimenak ezagutarazteko.



06 ARRAUN EGOKITUA HERNANI ARRAUN ELKARTEA

Orona Fundazioak Hernaniko arraun-elkarte honetako Arraun Egokitua saila babesten du.

Irune Troitiño eta Eneko Mendizabal lehiatu dira Espainiako Arraun-ergometro txapelketan, Sant Jaume D'Envejàn (Tarragona), eta lan bikaina egin dute.



Kohesio soziala

07

ERREBELDEAK FEST 2024

DAME TVISIÓN

Irailaren 21ean Errebeldeak Fest jaialdiaren IV. edizioa egin zen Hernanin; pertsona itsu batek, Hernanin bizi den Ibon Casas rockeroak, osorik zuzendutako kirol eta musika jaialdi inklusibo bakarra.

DameTVision Kultur Elkartea da jai egun honen antolatzailea, eta bere helburua da herritarrei erakustea desgaitasuna duten pertsonak gizartearen sartzea posible dela arlo guztietan.

Herritarrek parte hartzeko kirol-jarduera irekien artean, aipatzekoak dira gurpil-aulkiko esgrima-jardunaldia, goalball-partidak, boccia eta arraun-ergometro inklusibo bat.

Musikaren atalean herriko hainbat taldek parte hartu zuten.



08

BIPIDESTADOREAK EROSTEA

ASPACE

Aspace Gipuzkoa irabazi-asmorik gabeko familia-elkarte bat da; 50 urtetik gorako ibilbidea du, eta garun-paralisia eta/edo antzeko asaldura duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea du helburu.

Elkartek hezkuntza bereziko 25 gela ditu, eta maila fisikoan zein kognitiboan afektazio larria duten 20 urte arteko gazteak eskolatzen dira haietan. Ikasleek asaldura motor larriak dituzte, zutik jartzea eragozten dietenak.

Orona Fundaziotik erraztu egin nahi izan dugu Aspaceko ikasleak posizio bertikalean jartzeko aukera emango duten bipedestadoreak eskuratzea, haien ongizate fisikoa eta emozionala hobetzeko.



09

BIZIPOZA JAIALDIA

BIZIPOZA ELKARTEA

Behar bereziak dituzten familien eta pertsonen elkarteak biltzen ditu Bizipoza Elkartek.

Apirilaren 27an egin zen jaialdia, Hernanin, Bizipoza eta hura osatzen duten elkarten lana gizarteratzeko asmoz. Hainbat ekintza antolatu zituzten egunean zehar: tailerrak, jolasak, dantza emanaldiak, Zapotxin, Porrotx eta Marimototsen emanaldia eta Bizipoza elkarteko kideei eskerrak eman eta aitortza egiteko ekitaldia.

38 elkartek osatzen dute Bizipoza, eta haien helburua da guztiontzako gizarte inklusiboa eraikitzea, euskaratik eta euskaraz. Elkarre horien guztien eguneroko lana eta errealitatea sozializatzea eta horretan eragitea da Bizipozaren xedea.



Kohesio soziala

10

"IHESA ZILEGI BALITZ" ERAKUSKETA ARGILUN KULTUR ELKARTEA

Gerraren edo gosearen erruz ihes egiten duten pertsonen joan-etorriari buruzko erakusketa-proiektua.

Formatu handiko irudiak dituen aire zabaleko erakusketa honen helburua da egunez egun Irundik muga zeharkatzen saiatzen diren pertsonen egoera ikusaraztea.

Gure lurraldearen muga zeharkatzeko migratzaileek egiten duten bidea azaldu nahi du proposamenak, eta errealitate hori testuinguruan jarri.

Egitura bakoitzak gai jakin bati helduko dio, migratzaileen errealitatea testuinguruan jarri ahal izateko: hasi jatorritik, haien ihesaren arrazoiak ulertzeko, eta ibilbide eta zeharkaldietan aurkitzen dituzten oztopoetaraino, betiere migrazio politikei buruzko hausnarketa sortzeko helburuarekin.

Bi urtean zehar, erakusketa-proiektua hilabetez egongo da ikusgai Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko hiri nagusietan.



11

GERTU KULTURA KULTUR KABIA ELKARTEA

Gipuzkoako "Gertu Kultura / Acerca Cultura" programa babesten dugu. Programa horren helburua da egoera ahulean dauden pertsonen kultura-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzen laguntzea.

Kultura eskura izatea eskubide bat da, pertsona duintzen du eta haren gizarteratze osoa normalizatzen du. Ekimen honen bitartez, antzoki, auditorio, jaialdi, museo eta espazio enblematikoen sare batek bere kultur programazioa eskaintzen die zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen, gizarte erakundearen eskutik.

2024an zehar, 166 kultur esperientzia erreserbatu dira eta 2.005 pertsonak baino gehiagok gozatu dute kulturaz programari esker.



Garapen akademikoa

Hezkuntza bultzatuz aliantzen bidez

01

FIRST LEGO LEAGUE SANTO TOMAS LIZEOA

Joan den martxoaren 2an Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikasle-talde batek lehen postua lortu zuen Donostiako egoitzan jokatu zen First Lego League txapelketan, eta estatu mailako finalera pasatzea lortu du hala. Orona Fundazioak, bokazio zientifiko-teknologikoen aldeko apustuarekin bat eginez, ikasle-talde horrek txapelketako finalean parte hartzea bultzatu nahi izan du.



First Lego League (FLL) nazioarteko hezkuntza-programa bat da, 4 eta 16 urte bitarteko gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzen dituena.

Urtero, FLLk erronka berri bat eskaintzen die parte-hartzaile guztiei, sormena sustatzeko.

Proposatutako gaiarekin bat etorritik, gazteek hiru atal dituen proiektu bat egin behar dute: atal teknikoa, atal zientifikoa eta balioak. Alde batetik, robot bat diseinatu behar da erronka batzuk gainditzeko, zeinak urtero berritzen baitira. Gainera, benetako arazo batean oinarritutako proiektu zientifiko berritzaile bat egiten da, hari irtenbidea emateko. Azkenik, esperientzia honetan zehar, FLLk proposatutako balioekin lan egin behar dute taldeko pertsonak: aurkikuntza, talde-lana, inklusioa, inpaktua, dibertsioa eta berrikuntza.

02

TAILER TEKNOLOGIKOAK DOPLAY

Aurten ere, Doplayri lagundu diogu, udako tailer teknologikoak Orona Fundazioaren instalazioetan egiteko.

Tailerrak 8-17 urteko gazteei zuzenduta daude, robotikaren, programazioaren, bideojokoen diseinuaren, animazioaren, errealitate areagotuaren eta birtualaren alorrean ikaskuntza sustatzeko.



Garapen akademikoa

03

PBL DAY

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Martxoaren 13an Orona Fundazioaren instalazioetan egindako jardunaldian, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ingeniartza-graduetako lehen, bigarren eta hirugarren mailetako 120 ikaslek ikasturteko lehen hilabeteetan PBL (Project Based Learning) metodologia aplikatuta garatu dituzten proiektuetatik 27 onenak azaldu zituzten.

Biomedikuntzako Ingeniaritzako ikasleek Orona Fundazioak ematen duen sari nagusia irabazi zuten, merkatuko egungo inkubagailuekiko berrikuntzak dituen fototerapiako inkubagailu baten proiektuarekin.



04

IKASTURTE AMAIERAKO PIANO-ERREZITALDIA

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Ekainaren 12an, Orona Fundazioaren auditorioan, Hernani Musika Eskola Publikoaren piano-ikasturte amaierako errezitaldia izan genuen.

Hernani Musika Eskola Publikoa musika irakasteko zentro bat da, zeinaren helburu nagusia baita ikasleek ahots- eta instrumentu-taldeetan parte har dezaten erraztea eta sustatzea. Horretarako, instrumentu- edo kantu-eskolen eskaintza zabala dute, baita jotzeko, abesteko eta musikaz gozatzeko taldeena ere.



Garapen kulturala

Identitate kulturala indartzen

01

SAN JUAN BALEONTZIA ALBAOLA

Orona Fundazioak Albaolarekin lankidetzan jarraitzen du, San Juan baleontziaren erreplika eraikitzen laguntzeko.

Albaolak ontzia eraikitzeko azken faseari ekin dio, eta aurreikusten du 2025ean uretaratzeko eta Kanadarako zeharkaldia hasteko prest egongo dela.

Albaola Itsas Kultur Faktoriaren jarduera nagusia itsasontzi historikoak egitea da, euskal gizartearentzat itsas teknologia artisauak izan zuen garrantzia nabarmentzeko.



02

TOLOFOLK JAIALDIA JEAJEAKA KULTUR ELKARTEA

Herri-kultura eta folk-musika sustatzea helburu duen jaialdia da Tolofolk, JeaJeaka kultur elkarteak antolatua.

Orona Fundaziotik, apirilaren 4tik 7ra Tolosan egin den munduko musiken jaialdi herrikoi hau babestu dugu berriz ere. Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat musika-modalitatetako artistek zuzeneko 7 musika-emanaldi eskaini dituzte.



03

SENTSIBILIZAZIO-PROIEKTUA LANDARBASO

Landarbaso abesbatza musika-erreferentetzat hartzen da, eta haren ezaugarrien artean nabarmenak dira kideen gaztetasuna, proiektuen originaltasuna eta berrikuntza eta kalitatea.

Azpimarratzekoa da, halaber, euskal kulturarekin duen konpromiso ukaezina, galdutako lanak berreskuratuz eta moldaketa eta grabaketa berriak ekarriz.

Orona Fundazioak Landarbaso abesbatzaren sentsibilizazio-proiektua babestu du, euskal kantua eta musika tradizionala ondare immaterialaren zati gisa sustatzeko.



Garapen kulturala

04

LOUISBOURG-KANADA EUSKAL KULTURAREN LIBURUA JAUZARREA

Jauzarrea euskal kultura aztertu eta zabaltzeko funtsa da. Parks Canadak gonbidatuta —Kanadako gobernuak lurralde osoan parke nazionalak eta leku historikoak kudeatzeko duen erakundeak—, euskal kulturaren presentziari buruzko programa bat sortu du Louisbourgen.

Louisbourg gotorlekua da Ipar Amerika osoko enklabe historiko baten berreraikitze handiena, eta 150.000 bisitari jasotzen ditu urtero.



Frantziaren kolonia hura zer zen islatzen du, 1744. urtean girotuta, bere existentzia laburraren tarteko data batean (1713tik 1757ra iraun zuen). XVI. mendearen hasieratik euskal komunitatearentzat toki egonkorra izandako leku batean kokatu zen kolonia; euskaldunak larru-salerosketan, balea-ehizan eta bakailao-arrantzan ibili ziren han.

Euskal kulturaren presentziaren programaren barruan, Jauzarreak zabalkunde historikoari buruzko liburu bat egin du, Louisbourg-eko kolonian euskaldunek zuten presentzia jasotzen duena. XVIII. mendean biztanleriaren % 20 osatzen zuten, eta euskalduna bigarren nazionalitatea zen kolonian, frantsesaren atzetik.

05

BINAKAKO ERREMONTA-TXAPELKETA ERREMONTARI

Erremontea xistera erabiltzen duen euskal pilotaren modalitate ikusgarrienetako bat da, pilotarien teknika eta pilotak hartzen duen abiadura direla eta.

Orona Binakako Erremonte Txapelketaren edizio berri honen aurkezpena urriaren 16an egin zen, Orona Fundazioaren auditorioan.

Orona Fundazioak erremontea laguntzen jarraitzen du, gure inguruneko ondare kulturala baita.



Garapen kulturala

06 OMBUAREN ITZALA FILMA EGUZKI ART ZINEMA

Baliabide ekonomiko gutxiko bertsolari-familia batean jaioa, Pello Mari Otaño euskal letren berritzaile handia izan zen, bere garaiko kultur erreferenteetako bat bilakatzeraino. Lan garrantzitsuak idatzi zituen, eta Argentinako euskal diasporaren seme-alabei euskara irakasteko metodologia berezi bat ere sortu zuen.

Ombua da bere konposizio ezagunenetako bat inspiratzen duen zuhaitza, eta migratzailearen nostalgiaren sinbolo bihurtzen du.

Orona Fundazioak babestu egiten du euskal kulturaren figura garrantzitsu horri balioa ematea helburu duen proiektua.



07 150. URTEURRENA VALENTIN LARREA

Gabirian jaioa, Balentin Larrea konpositore eta pianista emankorra izan zen. Besteak beste, pianorako, organorako, hari-talderako eta abesbatzarako idatzi zuen. Gainera, bere garaian, koru-konpositore ezaguna izan zen eta hainbat sari eta aintzatespen jaso zituen.

2019an jarri zuen martxan Larrearen familiak musikariaren figura eta obra berreskuratzeko proiektua. Pentsatua dago 2026an, jaiozaren 150. urteurrena dela eta, haren hainbat lan transkribatzea, bi disko grabatzea, haren bizitzari buruzko liburu bat osatzea eta film labur bat egitea.



08 "DEJAME IR" FILM LABURRA ANDER IRURETAGOIENA

Une zailetan adiskidetasunak eta erresilientziak duten garrantzia islatzen duen istorioa.

Orona Fundazioak babesten duen film labur honek David eta Sofia pertsonaien arteko adiskidetasuna du oinarri, eta umezurtzegi bateko haurtzaroko benetako pasarte batean dago oinarrituta.

Istorioaren ardatza da irudimenezko adiskidetasun horrek Davidi nola laguntzen dion inguruko erronkei aurre egiten. Instituzioetako abusuen gaia jorratu arren, ardatz nagusia lagunaren arteko lotura eta elkarren arteko laguntza da.



Euskararen sustapena

Identitate bati estuki lotutako hizkuntza

01

IKASTOLEN JAIK

EHI - EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK

Orona Fundazioak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du Euskal Herriko Ikastolekin, Erronka ekimena gauzatzen laguntzeko ikastolen bost jaietan: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.

Erronka gazteei zuzendutako ekintza bat da, eta hainbat jolas-mota gainditzean datza, ikastola desberdinetako gazteen arteko harremana sustatzen duen giro kooperatibo batean.



02

BERTSOLARI ALDIZKARIA

BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsozale elkarteak Bertsolari aldizkaria sortu zuen 1991n. Bertsolaritza jorratzen duen aldizkari bakarra da, eta era guztietako edukiak biltzen ditu: kronikak, erreportajeak, ilustrazioak, autobiografiak eta bertsoak.

Eta komikiak, urteek aurrera egin ahala, gero eta presentzia handiagoa hartu du argitalpenean.

Euskal kulturarekin dugun konpromisoarekin bat, Orona Fundazioak babestu egin du Bertsolari aldizkaria



Euskararen sustapena

03 MATX APLIKAZIOA

TOKIKOM

MATX proiektuaren helburua da euskarazko kirol-komunitatea sortzea eta klubei digitalizatzen lagunduko dien tresna bat eskaintzea.

MATXen muina mugikorreko aplikazio bat da, baina webgunea eta kudeaketa-tresna bat ere baditu, bai eta sare sozialak ere.

Alde batetik, klubentzako barne-kudeaketarako tresna bat da, eguneroko kudeaketa errazten duena. Bestetik, kirol-komunitatearentzako tresna ere bada, bertako kirolarien sare bat sortzen baitu eta bertako kirol-taldeak eta emaitzen berri ematen.

Euskararekin dugun konpromisotik abiatuta, Orona Fundazioak proiektu honen alde egin du, kirol-komunitatean euskararen presentzia areagotzeko.



04 KORRIKA

AEK

Lasterketa honen helburua bikoitza da: alde batetik, euskararen aldeko kontzientziazioa bultzatzea, eta bestetik, AEKko euskara-ikastegien jarduerarako dirua biltzea.

1980an egin zen Korrikaren lehen edizioaz geroztik, euskararen aldeko ekitaldirik garrantzitsuenetako bat bilakatu da, biltzea lortzen duen jende-kopuruagatik.

Lasterketan, parte-hartzaileek lekuko bat eramaten dute, eskuz esku, kilometroz kilometro. Lekuko horren barruan, gure hizkuntzako pertsona garrantzitsu batek idatzitako mezu bat dago, eta ez da publiko egiten ekitaldia amaitzen den unera arte, orduan irakurtzen baita.



Orona Fundazioak babestu egin du Korrikaren edizio berria, eta, gainera, Oronako 40 pertsonak parte hartu zuten erakundearen izenean egindako kilometroetan.

Biodibertsitatea

Gure ekosistemak babesten lagunduz

01

NATURAGUNEAK BERRESKURATZEA IRUKURUTZETA FUNDAZIOA

Irukurutzeta Fundazioa 2021ean eratu zen, eta haren helburua da Karakate, Kortazar, Irukurutzeta eta Agarrebuko interes naturalistiko eta historikoko espazioa berreskuratzea, mantentzea eta integratzea. Fundazioak honako lan-ildo hauek ditu:

- Mendiaren zaintza: fundazioaren landa-lurretan, sastrakak, oteak eta abar garbitu egiten dira mendia kondizio egokietan mantentzeko.
- Animalien zaintza: fundazioarenak diren bertako bi animalia-mota zaintzen eta elikatzen dira: pottoka eta Euskal Herriko mendiko zaldia. Horrez gain, inguruko hesolak konpontzen dira, animalientzako eremu babestua kontserbatzeko.
- Zuhaitz autoktonoak landatzea: neguan zuhaitz autoktono berriak landatzen dira, hala nola pagoak, haritzak, arteak, lizarrak eta abar. Bertako flora berreskuratzea eta kontserbatzea da helburua.



02

ORNITOLOGIA-PROIEKTUA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Orona Fundazioak Aranzadiko Ornitologia Sailaren bi proiektu babesten ditu, Eratzuntze Bulegoaren 75. urteurrenaren esparruan.

Lagundutako lehenengo proiektua "International bird ringing photo contest" da. Natura-argazkien lehiaketa bat da, Aranzadi Zientzia Elkartearen Eratzuntze Bulegoak antolatua, eta hegaztien eratzuntze zientifikoari lotzen zaizkion misioa eta balioak zabaltzea du helburu, izaki bizidunen talde hori hobeki ezagutze eta zaintze aldera.

Parte hartu dugun bigarren proiektua Euskadiko hegazti migratzaileen atlasa egitea eta argitaratzea izan da. Euskadik horrelako obra bat duen lehen aldia izango da.

Orona



Fundazioa Foundation

Jauregi bidea z.g.
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Telf. +34 943335588

info@oronafundazioa.org
www.oronafundazioa.org

